

'Bularretik mintzora' cd liburua atzo aurkeztu zuten

Donostia. Galtzagorri elkarteak Bularretik mintzora izeneko ekimena abian jarri zuen iazko abenduan Tolosan. Lehen esperientzia horren ondoren, Iurreta, Ermua, Oñati eta Amurrión ere frogatuko dute berehala, eta datorren urtean Euskal Herriko edozein herriak parte hartzeko aukera izango du. Helburu nagusia honako hau da, irakurzaletasuna sustatzea 0 eta 6 urte bitarteko haurren artean. Horretarako, gurasoen eta hezitzaileen inplikazioa beharrezkoa da etxean, eskola eta liburutegian giro irakurle bat sortzeko bideak jorratzeko. Kanpainaren tresnarik garrantzitsuenak Bularretik mintzora CD liburua da. Galtzagorri argitaratuta, sehaska kantak, hitz jolasak eta ipuinak biltzen ditu. Elkarteko Itziar Zubizarretak zuzendu, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurélio Edler Copések musikatu du.

>J.g.a